

MARIA ELENA LETE GARCIA Bergarako Udaleko Alkateak emandako

DEKRETUA

Ikusita Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa, 2018-KALD-000006-00 zenbakiduna.

Ikusita Kontu-hartzaileak idatzitako txosten eta ziurtagiriaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 31. artikuluan ezarritakoarekin.

Ikusita Ogasuneko Batzorde Informatiboak egindako aldeko irizpena eta onarpen proposamena.

Arestian aipatutako foru arauk 31. artikulua 5. eta 6. apartatuen bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz, hau

ERABAKI DUT

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

GASTUAK


Gastuen partida	Azalpena	Zenbatekoa
1 0700.601.454.00.01	BASERRI BIDEAK ETA KUNETAK	28.012,26
GAITU BEHARREKO KREDITUAK GUZTIRA		28.012,26

SARRERAK

Kod.	Sarrerren partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0101.720.010.00.01 2018	Dipu (Foru Aldundi) kapital ekarpenak	28.012,26
FINANTZAKETA GUZTIRA			28.012,26

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzailatza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udaltzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.

Hau da Alkate andreak agindu eta sinatu duena, Bergaran, bi mila eta hemezortziko uztailaren seian, eta nik, Idazkariak, ziurtatua.



A handwritten signature in blue ink, consisting of a series of loops and a long horizontal stroke at the end.